

# hezkuntzako

*Inon ez dauden*

*Aurrejubilatuenak*

Bizitza osoan lan egin eta gero, merezitako jubilazioa jasotzea bidezkoa dela deritzo STEE-EILAS sindikatuak. Horren alde egon arren, une honetan irailetik aurrera erretiro partziala hartu nahi zuten zazpi pertsonen ez diete erretiro partziala onartzen beste lan-legepeko guztiei bezala, horregatik sindikatuak egoera hau salatu behar du.

Itxuraz, hemengo Gizarte-Segurantzak oniritzia eman omen zien baina Madrilekoak jarri omen ditu arazoak, hori da, behintzat, hemengo Gizarte-Segurantzaren zuzendariak dioena. Aurrejubilatuen nahi diren hauei bidalitako gutunean ezetzarekin batera arrazoia azaltzen diete, dirudienez, beren ordezkapena betetzen duten langileek urte asko omen daramate lanean, hori dela eta, langile finkoak izan beharko lukete. Beraz, Madrilekoen iritziz bakanteak hartzen dituzten ordezkioak langile finkoak izango lirateke. Hau mauka !

Honetaz gain, kontuan hartu behar da aurretik beste hainbat lan-legepeko aurrejubilatuen dela inongo arazorik gabe, egoera honen surrealismoa areagotuz.

Horregatik, zazpi pertsona hauek irailaz geroztik %15 kobratzen ari dira, hau da, entpresari dagokion diru-kopurua. Une honetan errekurtsioa egina badaukate ere, oraindik ere erantzunik ez dute jaso.

Ez daude aurrejubilatuenak, ez daude lanean, ez daude inon, mamuak dira. Egoera hau jasanezina da, horregatik, Hezkuntza Sailari, gutxienez, bi gauza hauek eskatu dizkio STEE-EILAS sindikatuak: bata, afektatuekin bilera bat egitea lehenbailehen; bestea, Hezkuntza Sailak bere gain hartzea %85aren ordainketa idatziz, errekurtsioaren erantzuna jaso bitartean.

Eskaera hauei eman zitzaion erantzuna izan zen, batetik, Hezkuntza Sailak ez zuela inongo arazorik bilera egiteko afektatuekin, (erantzuna urtarrilaren bukaeran eman zen, dagoeneko otsailaren bukaeran gaude eta bilera hori ez da gauzatu); bestetik, Hezkuntza Sailak ez du inongo konpromiso idatzirik sinatuko bere gain hartuz %85aren ordainketaren ingurukoa★

**Konponbidea lehenbailehen!**

*Urte*

*Sabatikoa*

Urte hasieratik **maiatza-ren 31ra arte** partzialki ordaindutako baimena eskatzeko epea zabalik dago. Baimen hori gure Hitzarmeneko langileria osoa disfrutatzen eskubidea dauka. Eskaera onartua izanez gero, hurrengo ikasturtetik aurrera jarriko litzateke martxan, eta langileak **bost ikasturte-etan zehar soldatuko %84 kobratzen du, bosgarrena lan beharrik gabekoa delarik.**

Gogoratzen dizuegu lehenengo lau urteetan beste edozer baimenarekin edo soldata murrizketarekin bateragarria dela, bosgarren urtean dagokion soldata behera proportzionalak izango zuela kontuan harturik.

Bosgarren urtean ezin da beste edozer ordaindutako jarduerarik burutu.

Eskaera orria Hezkuntza Saileko Web-orrian lor dezakezue. Zalantzarik baduzue, gure egoitzetan galdetu edo kontsultatu **2004ko urtarrilaren 7ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuaren Agindua (urtarrilaren 22ko 14. EHAA)★**

# hezkuntzako

# laboralak

*Especialistak*

**GARATU**

*ordezkapenak betetzeko arazoak*

Pasa den ikasturtean amaitutzat eman zen **Hezkuntza Laguntzako Especialistentzako kategoria** berriaren homologatzeko prozesua. Baina honek ez du esan nahi kategoria honentzat prestakuntzarako ikastaro gehiagorik ez direnik egongo, ez. Gertatzen dena da, hemendik aurrera GARATUren bidez bideratuko dituztela.

GARATUko arduradun batek adierazi digu datorren ikasturterako, hau da 2006-2007 ikasturterako, lau ikastaro eskaini nahi dituztela kolektibo honi zuzenduak. Hiru ikastaro ikasturtean zehar egiteko, lan-ordutegitik kanpo, eta beste bat ekainaren azken astean egiteko, lan-ordutegia barne. Horietariko bi ikastaro zehaztuta daude: "Jolasgaraia eta patioa ingurune inklusibo gisa" eta "Nire beharrik izan ez dezaten erakutsi. Nola Joka dezaket haien moldatze edo egokitze". Besteak zehazturik gabe badaude ere, egon erne eta txostena zuen ikastetxeetara helduko denean aztertu ondo.

**Fisioterapeuten kolektiboa** askoz txikiagoa denez, ikastaroak haientzat bakarrik ateratzea ez dela errentagarria GARATUko arduradunaren arabera. Beraz, txostenean eskaintzen diren ikastaroen artean baten batean (adib. "Haurrentzako masajea") parte hartzea eska badezakete ere, Berritzeguneetan kudeatuko dira haientzako ikastaroak.

**Egon erne partehartzeko eskerak egiteko epea noiz den jakiteko! ★**

Urtero legez, hezitzaileen ordezkapenak betetzeko arazoak egoten dira; esate baterako, gripea gori-gorian dagoen garaian, edo gure kategoriako Formakuntza Zikloetako azterketak direnean, eskola batzuetara ez dute ordezkorik bidali, edo euskarako lanpostuetarako hizkuntza eskakizunik gabeko langileak bidaltzea eskeini diete.

Lurralde Ordezkaritzetan zerrendetan ez dagoela inor libre esaten digute. Edonork pentsa lezake zerrendak berriro zabalduz konpontzen dela arazoa, baina konponbidea ez da hain erraza, hona hemen agertu diren arazoak:

**Araban** ikasturte honetan birritan zabaldu dute zerrenda, urrian eta otsailean. Urrian 66 pertsona apuntatu ziren; horien artean gehienak lanean zeuden beste lekutan (guztiak, 3 izan ezik), beraz ez zeuden ordezkapenik egiteko moduan. Otsailean 39 pertsona sartu ziren, eta jarraitzen dute ordezkapenak betetzeko arazoak izaten, ia inor libre ez dagoelako.

**Bizkaian** abenduan zabaldu zuten. Gehitu ziren 70 pertsona, baina kasu honetan ere gehienak lanean jadanik.

**Gipuzkoan** otsailaren amaieran zabaldu dute. Oraindik ez dugu datu zehatzik.

Ohartuko zaretenez, apuntatutako pertsona kopurua oso txikia da: libre egongo balira ere, ez zen nahikoa izango kolektiboaren beharrei aurre egiteko.

Administrazioak ezin du bere burua zuritu ahal duena egiten ari dela esanez; ikastetxeetan egoera gogorak jasaten ari dira ordezkapenen falta dela medio, eta Hezkuntza Sailak beste bide batzuk topatu behar ditu ★